



2023/2024 denboraldia

21. ZIRKULARRA

EMAKUMEZKO ERREGIONALEN GORENGO MAILAKO LIGA TXAPELKETA

Gipuzkoako Futbol Federazioak aurtengo denboraldiko Emakumezkoen Gorengoan Mailako liga txapelketa honela antolatu du:

1. KLUB PARTAIDEAK

GRUPO 1 MULTZOA

- 1 DUNBOA EGUZKI C.D.
- 2 DUNBOA EGUZKI C.D. "B"
- 3 HONDARRIBIA F.E
- 4 MARIÑO REAL UNION "B"
- 5 USURBIL FT
- 6 ANTIGUA LUBERRI K.E.
- 7 INTXAURDI K.E. "B"
- 8 IRAULI-BOSTEKO K.K.
- 9 MARTUTENE K.E.
- 10 SANTO TOMAS LIZEOA

GRUPO 2 MULTZOA

- 1 BERGARA K.E.
- 2 GOIERRI GORRI F.K. "B"
- 3 ILINTXA S.D.
- 4 LAGUN ONAK C.D. "B"
- 5 URNIETA C.D.
- 6 ORIOKO F.T.
- 7 SEGURA GOIERRI K.E.
- 8 ZESTOA K.B.
- 9 AIZTONDO NESKIDE K.KLUBA

2023ko irailaren 5ean Mutriku FTaren uko egitearen ondorioz, 2. multzoan 9 taldek hartuko dute parte.

2. LEHIAKETA SISTEMA

Emakumezkoen Gorengoan Mailako liga txapelketa **19 taldek** osatzen dute 10 taldeko multzo batean eta 9 taldetako multzo batean banatuta. Bi fasetan jokatuko da: puntuen bidez eta bi itzulietara (18 jardunaldi), eta Euskadiko Futbol Federakuntzako Arautegi Orokorreko xedapenak jarraituko dira.



A. Igoera Fasea:

Multzo bakoitzeko lehen bostek (5x2 = 10), 5 taldeko bi multzotan banatuta, itzuli bikoitzera jokatuko dute fase hori (10 jardunaldi).

Maiatzaren 19ean, multzo bakoitzeko lehenak Kategoriako txapelduna zehazteko finala jokatuko du, partida bakarrera eta zelai neutralean.

Maiatzaren 19ean eta 26an, zozketa egin ondoren, bi partidatara igotzeko kanporaketak jokatuko dira, elkarren aurka (2.-2.), eta horrela, behar izanez gero.

Emakumezkoen Ohorezko Erregional Mailara igoko dira goragoko mailako beste batekin mendekotasun- edo filialtasun-harremanik ez duten bi multzoetako bakoitzeko lehen bi sailkatuak.

Euskal Ligako jaitsieren eta igoera fasean mendekotasuna izan dezaketen taldeen arabera, talde gehiago igo daitezke.

Bi multzo edo gehiagotan osatzen diren kategorietan, mailaz igotzeko edo mailari eusteko eskubideak sailkapen postu bera bete duten taldeen artean jokatuko dira. Hau da, lehenengoak, bigarrenak, hirugarrenak, eta horrela, hurrenez hurren, beste multzoko sailkapen-postu bera lortu duten taldeen aurka jokatuko dute.

Bere garaian Gipuzkoako Futbol Federazioaren Batzar Nagusian kategorია horiei eragiten dien koltxoi kategoriari buruz ezarritako akordioari eusten zaio.

- A) Erregionalen Gorengo Mailako igoera lehenetsiz.
- B) Erregionalen Ohorezko Mailatik jaitsi direnen artean, ondoen sailkatuta zegoen taldearen jaitsiera saihestuta.
- C) Eta horrela hurrenez hurren.

Emakumezkoen Euskal Ligak izan ditzakeen jaitsieren ondorioz Erregionalen Ohorezko Mailan 16 talde baino gehiago egongo balira, kategorία horretako jaitsieren kopuruak gora egingo luke kopuru horretara iritsi arte.

B. Gipuzkoako Kopa:

Gainontzekoek, 9 taldek, Gipuzkoako Kopa jokatuko dute multzo bakarrean eta itzuli bakarrera (9 jardunaldi). Multzoko lehen sailkatua Kopako txapelduna izango da.

3.IRAUPENA ETA ALDAKETAK

Partidak 90 minutuko iraupena izango du, bost aldaketa egin ahalko dira eta gehienez zazpi ordezko egongo dira aulkian.



4.ORDUTEGIA

Klub antolatzaileek posible izango dute euren partida larunbat arratsaldera aurreratzea, 15:30etik aurrera, aurkariaren baimenik gabe.

5.DIZIPLINA ARAUDIA

Lehiaketa hau arautzeko Euskadiko Futbol Federakundeko Diziplina Araudia erabiliko da, eta sortzen diren gorabeheretan, lehenik Gipuzkoako Futbol Federazioko Diziplina Batzordeak erabakiko du, eta bigarrenik Euskadiko Futbol Federakundeko Apelazio Batzordeak.

6. LIZENTZIAK

Inskribatutako taldeek gehienez 25 lizentzia izan ahalko dituzte, "FA", "FJ" eta "FC" lizentziei dagozkienak; azken kasu horretan, 15 urte beteta eduki beharko dira. Lehen taldean izena emanda dauden "FJ" eta "FC" lizentziadun jokalariek ezingo dute beren lizentziari dagokion taldean jokatu, hau da, jubeniletan edo kadeteetan.


7. BABES OROKORRA

Zirkular honetan xedatutakoa aldatu egin daiteke denboraldian zehar ezinbesteko arrazoiengatik, eta, 2023ko ekainaren 27an Batzar Nagusiak berariaz eskuordetuta, Gipuzkoako Futbol Federazioaren Zuzendaritza Batzordeak izango du soilik lehiaketa gelditzea edo/eta lehiaketara itzultzea erabakitzeko eskumena, sortzen diren ezinbesteko arrazoiak kontuan hartuta; txapelketa denboraz luzatzea; lehiaketak pandemiaren amaierarekin bat etortzea, baita horrekin zerikusia duen beste edozein erabaki ere.

Zirkular honetan aurreikusitako ondorioetarako, ezinbesteko kausak egiaztatutzat joko dira lurralde jakin batean gobernu-araudi edo -agindu bat dagoenean, eta, hala badagokio, eskumena duen justiziak behar bezala abalatuta, kirol-jarduerak garatzea eragozten duenean, dela edozein mailatako entrenamenduak, dela lurralde horretan partidak jokatzeko, dela muga horiek dituen alarma-estatua dekretatu izana.

Donostia, 2023ko irailaren 22a

GIPUZKOAKO FUTBOL FEDERAZIOA
FEDERACION GUIPUZCOANA DE FUTBOL


Iñigo Letamendi Artetxe
Idazkari Nagusia-Secretario General